



ZENDU BERRI DEN MIKEL ZALAKAIN GOGORATUZ

Adunako Ezker Abertzaleak Korsikan hil den euskal iheslaria oroitzeko mozioa aurkeztu eta elkarretaratzea egin du >5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-06-30**

VIII.U RTEA 2.039. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Tolosan manifestazioa egin zuten 18:00etan Triangelua plazatik abiatuta. E. EZEIZA



Asteasun gaztetxoaren pilota partidak izan ziren eta Urkizun hamaiketakoa egin zuten trikitilarien laguntzarekin. I. TERRADILLOS

Jai giroa Leaburu, Urkizu eta Asteasun

JAIK Aldarrikapen egunaz gain, San Pedro eguna ere izan zen atzokoa 7

GREBA OROKOR DEIALDIAK JARRAIPEN ZABALA IZAN DU

EKONOMIA Tolosaldeko zein Leitzaldeko enpresa eta saltoki ia guztiak itxita egin ziren sindikatuen deialdiari jarraituz 2-3

www.uratkatourra.com

1. **Euskal Herria Zikloturista Itzulia**

2. **MARLE (Zuberna) Euskal Herria**

3-4. **hitza**



Goizean hiriburuetan izan ziren protestak, arratsaldean berriz, eskualdeetan. Gurean Leitza eta Tolosan egin zituzten manifestazioak; lehendabizikoan ehunka lagun bildu ziren. ESTI EZEIZA

La erabateko jarraipena izan du Greba Orokorrak eskualdean

Ekonomia » Industria, merkataritza, eta garraio arloan, besteak beste, izan zuen eraginik handiena; mobilizazioak egun guztian zehar izan ziren.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko gehiengo sindikalak (ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU) atzorako Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan deitutako greba egunak eragin handia izan zuen Tolosaldean. Esan behar da, hala ere, CCOOek Nafarroan ez zuela Greba Orokorrerako deirik egin eta Leitzaaldean jarraipen zabala lortu zuela greba deialdiak.

Sindikatuak luzatutako datuen arabera, Gipuzkoan industria sektoreko 181 enpresetatik 145 lantokietan erabateko lanuztea izan zen %70etik gorakoa. Eskualdeari dagokionean ere lantoki gehienak itxita zeuden atzokoan. Zentzu honetan aipatzekoak dira SAM (Tolosa), Echesa (Asteasu), Unipapel (Aduna), Guibe (Irura),

Voith (Tolosa) eta Sarrio Papel (Leitza) bezalako enpresetan langileek lanuztearekin bat egin zutela.

Udaletxei dagokienez, eskualdeko gehienetan ez zuten lanik egin. Toki eta Foru administrazioen kasuetan, sindikatuak egindako balorazioan, hainbat udal nabarmendu zituzten, eta horietako bat Tolosa izan zen. Anbulategi eta garraio zerbitzuen kasuan berriz, gutxiengo zerbitzuak bete zituzten. Esan beharra dago, osasunaren esparruko lantegietan langileen %80tik gora behartuta dagoela gutxiengo zerbitzuak ematera.

Industrian eta merkataritzaren Greba Orokorren ondorioak oso agerikoak izan ziren atzo eskualdean. Izan ere, egun guztian zehar, industrigune ia denak eta hirigun-

eko saltokiak itxita zeuden. Hala eta guztiz ere, goizeko lehen orduetan, bazen zabalik zegoen okindegirik. Hauetako batean, «ogia saltzeko gutxiengo zerbitzuak» kartela zegoen atean. Sindikatuetako ordezkariak azaldu zuten, «horrelako aitzakiak erabat lotsagarriak eta iraingarriak dira».

Bestalde, kaleetako eta eraikin lokalen garbitasun zerbitzuetan lanuztea oso handia izan zen, kirol-zerbitzu eta instalakuntzetan, nahiz hainbat herrietako TAOan bezalaxe (Tolosakoa barne). Zaborbiltzaileek ere greba egin zuten eta eskualdeko hainbat gunetan, zaborra pilatuta aurkitu zitekeen, ontzien inguruan.

Irakaskuntzari dagokionean, sindikatuek jakitera eman zuten, haurreskolan lanuztea oso handia izan zen, langileen %80 inguruk jarraitu baitzuten. Bestalde, nahiz eta ikastetxeetan ikasturtea amaituta izan, sektoreko langile askok hartu zuten parte mobiliza-

zioetan, sindikatuen deialdiari batesa azalduz.

Nafarroa eta Gipuzkoaren inguruan luzatutako datuak ez dira berdinak. Baina gure eskualdearen kasuan, deialdia egin duten sindikatuek emandako emaitzen arabera, Leitzaaldean, ia erabateko jarraipena izan zuen Greba Orokorrak. Saltokiak itxita egon ziren egun guztian zehar, eta Sarrio Papel bezalako lantegiak ere ez zituzten zabaldu.

Mobilizazioak

Atzo eguerdian, hego Euskal Herriko hiriburuetan egin zituzten mobilizazio nagusiak. Tolosaldeetik Donostiara joan ziren langileak eta Leitzaletik Iruñeara.

Eguna ordea, goizeko 05:00etan hasi zen informazioa banatzen ibili ziren piketeentzat. Tolosaldekoak Tolosan elkartu ziren ordu horretan. Eskualdeko industrigunetara joan ziren ondoren. Hauetatik itzuli bat eman ostean, hirigunera hurbildu ziren.

09:00etan Trianguloa plazatik komertzioetara joan ziren, Greba Orokorren zergatiak azaltzen zituzten eskuorriak zabalduz.

Arratsaldean berriz, Tolosan eta Leitzaan manifestazioak egin zituzten, gizarte eragile desberdinen babesarekin. Bi mobilizazioak 18:00etan hasi ziren eta ehunka langile elkartu ziren.

Grebaren arrazoiak

Sindikatuak Greba Orokorra egiteko eman dituzten arrazoen artean, lan erreformak «kaleratzeak erraztu eta merketu» egingoditue- la, «hitzarmenak ez betetzeko bidea» irekitzen duela, negoziazio kolektiboa «erasotzen» duela, aldi baterako lan enpresen «mugak kentzen» direla eta «enplegu prekarioa desagerrarazten ez duela» dira. «Jendearen beldurra baliatzen duen erreforma da», salatu dute sindikatuek grebara dei eginez kaleratu duten eskuorrian. «Neurri oso gogorak dira, erantzun indartsua eskatzen dutenak».

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako jatetxe batek uztailen eta abuztuan lan

egiteko zerbitzari bat behar du. Iganetan jai. Deitu 665 70 87 70 telefono zenbakira.



Eskualdeko industrigune gehienak itxita mantendu ziren egun guztian zehar. E. EZEIZA



Zenbait enpresetan, hala ere, atek irekitzea erabaki zuten eta normaltasunez lan egin. E. EZEIZA



Zabor biltzaileek ere bat egin zuten greba deialdiarekin, eta zabor ugari pilatu zen kalean. E. EZEIZA



Komertzioak ixtearekin batera, kaleak ere hutsik ikusi zitezkeen. E. EZEIZA




Goizean goiz elkartu ziren pikete informatzaileak, kaleak zeharkatzeko. A. IMAZ

Jai egun arrunt baten gisan

VILLABONA Irudi berezia eskaintzen dute greba egunek. Atzokoan, eguraldiak lagundu zuenez, eta aisiarako gune guztiak itxita zeudenez, jendeak kirola egiteko, osteratxo bat emateko, haurrekin jolasteko...

aprobetxatu zuen eguna. Igande baten antza hartu zuen egunak batzuentzat. Nahiz eta beste batzuk, mobilizazioetan parte hartu, eta beste modu batean igaro protesta eguna. E. EZEIZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa**MARI MUJIKAK** Tolosaldeko LAB-eko ordezkarria

«Soilik burujabetzaren bidez lortuko dugu aldaketa»

Greba Orokorra » Lan erreformaz gain, langabeziak, ERE-er eta negoziazio kolektiboen hitz egin du besteak beste Mari Mujikak.**ASIER IMAZ**

Mari Mujikak, Tolosaldeko LAB-eko ordezkarria, honela azaldu ditu grebaren zergatiak.

Eskualdean zein testuingurutan etorri da greba orokorraren deialdia?

Eskualdean eta orokorrean esan dezakegu oso testuinguru gogor batean etorri dela grebaren deialdia. Alde batetik, langabeziaren datuak benetan kezkatzeak dira gure eskualdean: 2010eko maiatzean Tolosaldean 2459 pertsona daude langabezia, 2008ko urtarilean 1587 zeuden. Beraz, egoera oso kezagarria da eta okerragoa dena, oraindik nabarmen okertu daiteke. Beste aldetik, EREan dauden enpresa eta langileak bere horretan jarraitzen dute eta ez dirudi epe labur batean egoera horretatik aterako direnik.

Eta azkenik, eta ez garrantzi txikiagoa duelako, negoziazio kolektiboaren egoera daukagu, non azken egun hauetan sektore desberdinetako langileak erantzun eredugarria bat ematen ari zaizkien patronala eta Adegiren jarrearari, sektoreko greben bidez.

Beraz, egoera oso gogorra da eta langileriaaren inplikazioa behar be-

harrezkoa da datorkigun erasoaldiari erantzuteko.

lazkoarekin alderatuta, grebarako deia egitean, aldaketarik nabaritu al duzue langileen artean?

Oro har nik esango nuke gaur egun bizi dugun egoera kontuan edukita (greba sektorialak), erantzuna 2009 maiatzaren 21koa baino hobetagoa izan dela. Nere ustez langileak konturatu dira orain arte Madriletik datorrena ikaragarria dela eta askoz ere okerragoa izango dela. Kapitalismoa ase ezina da eta ekainaren 16ean hartutako erabakiak beste erabaki batzuen lehenengo neurriak besterik ez dira, eta aurrerago gehiago etorriko dira.

Ezin dugu ahaztu etorkizun hurbil batean pensioekin sartuko direla eta besteak beste negoziazio kolektiboarekin. Negoziazio kolektiboak Madrileran eraman nahi dute eta horretarako CCOO eta UGTren laguntza edukiko dute orain arte bezala, beste gauza bat izango da bere Euskal Herriko afiliatuei nola saltzen dioten erabaki hori.

Alderdi politikoen aldetik behintzat, aldaketak nabariak izan dira. Garrantzitsuena Ezker Abertzak**lea, EA, Aralar eta Alternatibaren deialdi bateratua izan da.**

Egia da alderdi politiko batzuk mugitu direla greba honen deialdiarekin bat egitean eta hori ona da. Nere ustez, alderdi politiko batzuk ere konturatu dira zer datoren eta honek asaldatu ditu. Ezin dugu ahaztu eraso honek EAJ, PP, UPN eta PSOEn babesa jaso duela eta beraz, bat egiten dutela Madriletik inposatzen dizkiguten neurri atzerakoi hauekin.

Grebarako garai ona ez dela esan dute besteak. Baita greba politikoa dela ere.

Euskal Herriko langile askoren egoeran egongo balira (langabeziak, pentsionistak, alargunak eta abar), ez lukete zalantzarik eduki, greba egingo lukete. Baina noski, batzuen eta besteen egoera ez da berdina, beraiek langileak nola eta noiz zapaldu aztertzen eta erabakitzen ari diren bitartean, langileak eta gizarteak oro har, sufritu egiten ditu haien erabakiak.

Botere politikoa erabat lerrokatuta dago botere ekonomikoaren alde eta langileoi geratzen zaiguna mobilizatu eta borrokatzea da, aldaketa soziala eta politikoa irabazteko.

Aurrera begira jarrita, zein da urruneko helburu zehatz hori?

Euskal Herrirako aldaketa sozial eta politikoa aldarrikatzen dugunean, argi dugu guk nahi dugun aldaketa burujabetzaren bidez soilik lortuko dugula. Euskal Estatu Sozialista sortzea da gure helburu estrategikoa, eta bide horretan Lan Harremanetarako Euskal Esparrua aldarrikatzen dugu urrats garrantzitsu bezala.

Eta zeintzuk dira gertuko erronkak; eguneroko lan hori?

Gertuko erronkei erreparatu gero, kontraboterean oinarritutako sindikal gintza egin beharra ikusten dugu. Langileak lantegietan antolatu, eztabaidak sortu, mobilizazioak antolatu, patronal eta gobernuen aurrean antolatu... aurre egitea ezinbestekoa da.



REBEKA CALVO

GREBAREN JARRAIPENAREKIN «OSO POZIK»

Atzoko eguna amaitu aurretik, lehen balantze bat eskatu genion Mari Mujikari. Iazko Greba Orokorrean baino emaitza hobekak ikusi omen dituzte: «Hasiera batean balorazioa oso ona egiten dugu. Goizean betiko itzulia egin dugu enpresetatik eta gutxi batzuk kenduta, erabat itxita zegoen dena. Orokorrean beraz oso jarraipen ona eduki du deialdiak. Are gehiago, iazko maiatzaren 21eko grebarekin konparaketa eginda, emaitzak askoz hobekak jaso ditugula esan genezake, beraz, oso pozik aurkitzen gara».

Gauza bat lantegiak edo dendak itxia da, bestea berriz, mobilizazioetan parte hartzea. Eguerdian Donostiara deituak zeuden eskualdeko langileak: «Donostian hiru zutabetan zegoen antolatuta manifestazioa. Gu, Goierri eta Hernanirekin batera, Anoetako futbol zelaitik atera gara. Egia esan gure zutabea oso potentzia izan da, iazkoa baino handixeagoa. Horrekin batera, jende gazte asko ikusi dut eta horrek izugarriko poza ematen ditu. Hartzen ari diren neurriak espresuki gazteen eta emakumeen aurkakoak izaten ari dira, eta gure zutabearen behin behin, hauen erantzuna bikaina izan da; parte hartze oso inportantea eduki dutelakoan nago. Gero hiru zutabeak elkartzen joan gara eta Boulevard-era iristear ginela, manifestazioaren amaiera ez genuen ikusten. Horrek esan nahi du manifestazio oso garrantzitsua izan dela gaurkoa».

H Hilberria

JUAN MAYOZ SARASOLA
Jauna
-Goian bego-

Zure ondoan ikasi dugu nola bizi zoriona bizitzak ere badituela aurpegi txarra ta ona nola apurka umearekin eraikitzen den pertsona bibolentzako beti izan duzu aurpegirikan goxona maite gintuzun guztiagatik eskerrikasko aitona.

Zure bilobak: Ainara eta Xabi, Eneko, Nagore eta Ekaitz, Mikel, Iñaki, Jon, Maialen, Aiora, Garazi; birloba: Sara
Helbidea: Altizurruta Baseria

OREXA
2010eko ekainaren 30a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

E Emaitzak

PILOTA

NAFARROAKO
HERRIARTEKO TXAPELKETA
Baztan-Leitza (2-2)

ALEBINAK

A. Aldurtzin-Jon Lezea 14
Baztan 18

INFANTILAK

A. Olano-M. Sagastibeltza L. 18
Baztan 9

JUBENILAK

J. Jaunarena-Hernandorena 22
Baztan 10

SENIORRAK

A. Garzia-M. Iriarte 18
Baztan 22

VII. HITZA TXAPELKETA

KADETEAK

Olano-Elustondo -
Goikolea-Iruretagoiena -

INFANTILAK

Urrerabizkaia-Elejalde -
Juanenea-Aizpuru -

ELGETAKO TXAPELKETA

Finalerdiak

KADETEAK
Anartz Olano 21
Iribarria 22

AÑORGAKO TXAPELKETA

Finalerdiak

KADETEAK
X. Jaunarena-M. Hernandorena 22
Erostarbe-Imaz 15

INFANTILAK

A. Gartziaarena-X. Zubiria 8
Telletxea-Aldabe 18

ALEBINAK

Saez-Salaberria 13
- 16

SOKATIRA

LUR GAINEKO TXAPELKETA,
600 KILOTAN

LEHEN JARDUNALDIA

1. Goiherri A (Erandio)

2. Gaztedi (Laukiz)

3. Areso

4. Mutriku

5. Goiherri B

6. Getxo

7. Gaztedi A

SEGA

GIPUZKOAKO AZKARTASU-
NEKO TXAPELKETA

GIZONEZKOAK

1. Joxe Gabirondo (Gaztelu)

2. Juanjoxe Lizaso (Asteasu)

3. Mikel Artola (Donostia)

4. Jexumari Ormaetxea, Urki

5. Jokin Etxeberria (Amasa)

6. Andoni Goikoetxea (Gaztelu)

EMAKUMEZKOAK

1. Arrate Garin (Legorreta)

2. Aloña Galarraga (Idiazabal)

3. Yurre Olano (Gaztelu)

IPARRALDEKO JOKOAK

HARRIASOTZAILAK

1. J. Urrutia (Leitza) 3.387,50 kilo

2. Xabier Igoa 3.500 kilo

TXINGAK

1. Imanol Martin 410,75m

2. Josetxo Urrutia (Leitza) 181,80m

ARRAUNA

LIGAKO LEHEN ESTROPADA

AZKEN SAILKAPENA

1. Getaria-Tolosaldea 11:12"

2. Zumaia +0:16"

3. San Juan +0:29"

4. Orio +0:57"

TXIRRINDULARITZA

ESPAINIAKO TXAPELKETA,
KARRERA

SAILKAPEN OROKORRA

1. Leire Olaberria

2. Debora Galvez

3. Rosa Bravo



Tolosako pilotariek irabazi dute Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa. HITZA

Tolosak irabazi du Gipuzkoako Herriarteko Zesta-punta Txapelketa

Alegia » Finalean, Zumaiaren aurka, 2-1eko emaitza lortu dute Beotibar eskolako pilotariek.

ASIER IMAZ

Joan den larunbatean, ekainaren 26an, Donostiako Balda pilotalekuan Tolosako zesta-punta taldeak, Beotibar eskolakoak, Zumaiako talde indartsuaren kontra jokatu zuen Gipuzkoako Herriarteko

finala, Donostiakoak kanporatu etagero.

Hiru partida jokatu ondoren, Tolosako taldeak irabazi zuen aurtengo Txapelketa eta ondorioz, Tolosara ekarri zituzten ondo merzitako txapelak eta garaikurrak.

Azken emaitza, hain zuzen ere, 2 eta 1eko izan zen tolosarren alde. Kadeteek jokatu zuten lehenbiziko partida eta Tolosako ordezkariak ezin izan zuten irabazi. Ondoren, jubenilak aritu ziren deman eta oso partida gogorren 35 eta 34ko emaitzarekin garaipena tolo-

sarrek lortu zuten. Azkenik, seniorren ordua etorri zen eta ez zuten huts egin, izerdi puska bat aterata, erraz menideratu zituzten kostaldekoak.

Tolosako Beotibar eskolako ordezkariak eta aurtengo Gipuzkoako Herriarteko Txapelketaren garaileak ondorengo hauek izan dira: kadete mailan, Alex Ibañez, Unai Sukia eta Aitor Sukia; jubeniletan, Beñat Lopez eta Oier Zaldua; eta seniorretan, Arkaitz Izagurre, Iñaki Rezola eta Josu Trebasos.



Gabirondo eta Garin nagusitu dira

SEGA » Zizurkilen, Eskolaren atzealdean, Gipuzkoako Azkartasuneko Segatxapelketa jokatu zen igandean, hilaren 27an. Ehun lagun inguru elkartu ziren bederatzita segalari ikusteko asmoz. Gizonezkoetan sei aritu ziren. Bi sailak ebakitzen azkarrena Joxe Gabirondo gazteluarra izan zen. Juanjoxe Lizasok 6 segundo gehiago behar izan zituen. Zelaian hirugarren azkarrena Urki izan zen, baina penalizazioak tarteko, Mikel Artolak hartu zion aurrea orendainarrari. Etxeberria izan zen bosgarrena eta Andoni Goikoetxea seigarrena. Emakumezkoetan berriz, Arrate Garinek nahiko erraz irabazi zuen. Bigarren Aloña Galarraga geratu zen eta hirugarren Yurre Olano. Gazteluarrak lan polita egin zuen eta haur txikia eskuetan zuela joan zen saria jasotzera. A. IMAZ



Asteasuko gaztetxoek pilota partidak jokatu zituzten, irudian irabazleak. I.T.



Jatekoa eta edatekoa ere izan zuten asteasuarek. I. TERRADILLOS



Ohi bezela jendetza bildu zen atzo Asteasuko Elizmendi auzoan. I. TERRADILLOS



Leaburun tokan aritu ziren hamaiketakoaren ondoren. E. EZEIZA

San Pedro egun borobila

ERREDAKZIOA

Batzuentzat aldarrikapenerako eguna izan zen atzokoa, eta beste batzuentzat, berriz, festarakoa. Izan ere, Asteasun, Leaburun eta Urkizun euren jaietako egun handia ospatu zuten, San Pedro eguna. Eguraldia lagun, jende ugari murgildu zen jai giroan.

Asteasun, ohi bezala, jendez lepo bete zen Elizmendi auzoa. Herritarrak bertara igo ziren, mezaren ostean zer gozatua bazelako. Batetik, dantza soka erakustaldia izan zen, eta hamaiketako hartzen zuten bitartean herriko gaztetxoek pilota partidak izan ziren ikusgai. Arratsaldean jarraitu zuen festak musikarekin. Trikitixa, panderoa, biolina, pianoa, esku soinuua, perkusioa eta klarineten doinuak izan ziren entzungai, eta abesten ere aritu ziren. Plazan ez ezik herrian barrena ere egin zuten kalejira. Musika gauean ere izan zen

protagonista, Kupela taldekoekin, hain zuzen.

Leaburun eta Urkizun, azken eguna

Leaburun hamaiketakoaren ondoren, tokan jolastu zuten herritarrek. Arratsaldean, berriz, gaztetxoei zuzendutakoak izan ziren nagusi, jolasak, txokolatada eta buruhandiak izan baitzituzten. Barrikotean bildu ziren gauean eta egunari eta jaietara amaiera emateko, kantu saioa izan zuten Garazi Egi-guren eta Garazi Esnaolarekin.

Urkizun ere festen azken eguna zuten atzokoa. Asteasun eta Leaburun bezala, mezaren ostean hamaiketako egiteko bildu ziren tabernan, trikitilarien doinuekin.

Asteasun oraindik badute zertaz gozatua igandera arte luzatuko baitira jaiak. Egun horretan Larraitzen ere ospatuko dute San Pedro eguna.

» ASTEASUKO SAN PEDRO JAIAK

Ekainak 30, gaur JUBILATUEN EGUNA

- **11:00.** Meza.
- **Ondoren.** Aitzondo elkarrekin herriko jubilatuei eskaintzen dien hamaiketako.
- **13:00.** Herri kirol saioa: aizkora-rekin, eskualdeko Jesus Mari Mujika eta Joseba Otaegi lehiatuko dira. Harria jasotzen berriz, Izeta II eta Aimar Irigoien ariko dira.
- **14:30.** Jubilatuen bazkaria izango da pilotalekuan. Zapre eta Zaharra trikitilariak ariko dira, eta bertsotan, berriz, Telleria eta Zerberio.
- **18:00.** Herriko dantzarien emanaldia.
- **19:00.** Egan taldearekin erromeria.
- **22:30.** Egan taldearekin erromeria.

Uztailak 2, ostirala KOADRILEN EGUNA

- **14:30.** Koadrilen bazkaria.
- **16:00.** Gaztetxoek goitiberak Elizmendingin.
- **18:00.** Musika herriko kaleetan. Orkestra Itinerante (Txarangak elektrikoa).
- **21:30.** Herri afaria plazan.
- **Ondoren.** Trikujai Diskofesta.

Uztailak 3, larunbata

- **10:30.** Asteasuko auzoen arteko futbol torneoa. Taldeak: Kalea, Elizmendi, Goibarra eta Moraleja berria. Mus txapelketa herrikoa (16 urte arte eta 16 urtetik aurrera). Txintxon txapelketa.
- **18:00.** Zezen txiki eta poney-ak.
- **18:00.** Arkupeko pilota txapelketaren finala.
- **Ondoren.** Asteasuko pala txapelketaren finala.

- **23:30.** Musika kontzertua: Inde Kitxen eta Esne Beltza.

Uztailak 4, igandea

- **11:00.** Pilota jaialdia. Esku pilota eskolako txapelketako finala. Alebinak: Ioritz Maioz eta Julen Aizpuru. Kadeteak: Mujika eta Elustondo, Labaka eta Iruretagoienaren aurka. Jubeniletan, Urbieta eta Zinkunegi, Urbieta II eta Otaegiren kontra.
- **Ondoren.** Sagardo dastaketa plazan (sardinak eta txorixoarekin). Sagardotegi hauei esker: Aburuza, Etxeberria, Sarasola eta Zabala.
- **18:00.** Herri kirolak: Asteasuko taldeen arteko lehia.
- **Ondoren.** Laket taldearen kontzertua.
- **23:00.** Laket taldearekin erromeria.



23°
16°

GOIZA OSKARBI
ARRATS. OSKARBI
BEROENA 29°
HOTZENA 16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoeta/leizaola@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Zizurkilgo taldeak irabazi du Xiba txapelketa. HITZA

Zizurkil herrien arteko herri kirol topaketetan garaile

Herri kirolak » Hirugarren aldia da txapelketa irabazten dutela; txapela Mikel Egibar euskal presoari eskaini zioten.

ERREDAKZIOA

Zizurkil izan da Xiba herrien arteko herri kirol topaketetan irabazlea. Finala pasa den asteburuan izan zen Arbizun (Nafarroa) eta Gipuzkoako kanporaketa irabazita lortu zuen finalerako txartela.

VII. topaketa izan da aurtengoa eta hirugarren aldia da jada, Zizurkil irabazten duela. Lehen jaial-

dian eta iaiz lortu zuten garaipena zizurkildarrek. Bigarren postua Asteasuk eskuratu zuen eta hirugarren Idiazabalek egin zuen.

Txapelarako lehia, hortaz, eskualean geratu zen; Asteasu eta Zizurkil artean. Azken emaitza jakitea, hala ere, asko kostatu zen, eta gauerdia pasata jakin zuten puntu bakarrarengatik irabazi zutela.

Era berean, Zizurkildarrek orain preso dagoen Mikel Egibar oroitu zuten, berak bultzatuta hasi baitzen taldea. Bera izan zen Zio-tza kirol elkartearen bultzatzailea ere. Iaz ere Egibarri eskaini zioten txapela zizurkildarrek.

A Agurrak



Zorionak Andoni!

Besarkada handi bat herritarren partetik!

A Agenda

Jaiak

■ **Asteasu.** San Pedro jaiak: meza, jubilatuen hamaiketako, herri kirolak Jesus Maria Mujika eta Joseba Otaegi aikolariekin eta Aimar Irigoien eta Izeta II.a harrijasotzailerekin, jubilatuen bazkaria Telleria eta Zeberio bertsolariekin eta Xapre eta Zaharra trikitilarierekin; herriko dantzarien emanaldia eta dantzaldia Egan taldearekin.

Kirolak

■ **Albiztur.** Frontenis Txapelketan parte hartzeko izena herriko tabernetan eman daiteke. Neskek eta mutilek, banaka zein binaka jokatzeo aukera izango dute. Bikoteek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta banakakoak berriz, 10 euro.

Partidak uztaila eta abuztuan jokatuko dira, ostiral eta larunbat arratsaldeetan. Epaila lanak, lehiakideen artean egingo dira. Sariei dagoen artean, finalista guztiek abuztuaren 13an ospatuko den Zikiro afarirako txartelak jasoko dituzte. Irabazleentzat berriz, txapelak izango dira eta Txerrizale Elkar-teak eskainitako produktuekin osatutako saskia.

Mendi irteerak

■ **Alegia.** Uztailaren 3 eta 4rako Pirinioetara mendi irteera antolatuko du Alegiako Mendi Asanbladak. Izen-ematea, ohiko tokietan.

Aisialdia

■ **Amezketan.** 60 urtetik gorako

herriarrentzako txangoa uztailaren 4an Biarritz eta Hossegor-erara, Ibardingo Beola jatetxean bazkari, denbora librean izango dute Soikoan eta Donibane Lohitzunen; askaria bertan egingo dute. Izena eman nahi dutenek ekainaren 28tik 30era izango dute horretarako aukera, biak barne, 9etatik 14etara.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!
902-82 02 01
(Asteagunetan 09:30-20:30 / Lanuratsuetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 beheko • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Gozatu Frantziako Tourraz Tropelean!

Abian da tropela.net:
tourra, sarsan, euskaraz,
eta sariekun...

Izen ematea dohainik.
Bere emateko egun: Irakurria, uztailak 3, 11 ohera

Berriak sartzen, hitzak harpidetza irabazteko aukera: tropele.net

